

***OARSOALDEAK, Eskualdearen Garapenerako Elkarteak,
aurkeztutako PROIEKTUA***

1. OARSOALDEko-SAREAREN JUSTIFIKAZIO ESTRATEGIKOA

“Banan-banako lehiatik LEHIAKORTASUNERA KOOPERAZIOAREN bidez”

COMPITE-INICIATIVASen helburuen eta **SEKTORE ASKOTARIKO ESKUALDEKO LANKIDETZA-PLANAREN** planteamenduen arteko baterakotasuna eta sintonia erabatekoak dira, eta horiek gauzatzea da proiektuaren funtsa. **OARSOALDEko-SAREA** proiektua da horren gauzapeña.

Oarsoaldearen iritziz helburu nagusia, bi kasuetan, **LANKIDETZAN ARI DIREN ENPRESEN SAREAK** sortzea da, enpresetan berrikuntza eta egokitze gaitasuna lortzeko funtsezko tresnak baitira. Bide batez, **enplegua sortzen eta garapen ekonomiko iraunkorra** lortzen lagunduko dute.

Ez dago zalantzarik planteamendu hau **lorpen koiunturalei iraunkortasuna eta jarraipena emateko benetako modua dela** eta **estrategiko** bihurtuko dela **gure enpresek epe luzera dituzten egitasmoetan eta zereginetan.**

Testuinguru honetan, **esperotako emaitza** honakoetan oinarritzen da:

- Azpiegitura Adimentsuetatik eskualdeko enpresetaranzko eta enpresen arteko **ezagutzen eta teknologien transferentzia** sustatzean.

- Eskualdeko enpresen artean edota horien eta azpiegitura adimentsuen artean **berrikuntza eta garapen teknologikoko proiektuen garapena** sustatzean.
- **Enpresei bere lehiakortasuna eta hazkuntza sustatzeko bide emango dieten** ideiak sortzean, **industria-jarduera edota merkatu geografiko berrietara hedatuz**, adibidez.

2. PLANTEAMENDU TAKTIKOA

Ohi denez, enpresen arlo desberdinetan berrikuntza dinamizatu eta hobekuntzak lortzeko, proposamenak egiten dira eta ideiak jaurtikitzen dira enpresa-sustapenaren eremuan mugitzen garen estamentu ofizial eta erakundeetatik. Beste hitz batzuekin esanda, jeneralean, proposamenak enpresetara goitik behera bideratuta iristen dira, hau da, erakundeetatik enpresetara.

Hala, KLUSTER SEKTORIALak, enpresa-elkarteak, eta abar eratzerara iritsi gara. Eta enpresen partaidetzara gehiago jaitsiz, banan-banan, gehienetan arlo eta gai desberdinetarako programak proposatzen dira: inbertsioa, enplegua, I+G+b, hobekuntzak kudeaketan, kalitatea, IKTB, merkaturatzea/internazionalizazioa, etengabeko prestakuntza... eta beste hainbat gehiago, argitaratu eta deitutako programa anitzen helburu bereziak sakonki aztertzen ditugun neurrian.

Honetan datza landu dugun taktika: orain arte garatutako lerroa albora utzi gabe, helburu beretara iristeko eta enpresa-kontzientzian hobeto finkatzeko, **planteamendu bera oinarritik bertatik gauzatzean**.

Enpresaren eguneroko mundu, gai eta problematikan murgildu behar dugu, **enpresen artean LANKIDETZA-SAREAK eratzen eta kudeatzen parte hartu** behar dugu, beren bilera eta batzarretan izan behar gara, eta, oinarri horretatik abiatuta lortuko dugun informazioa egoki kudeatuz, arrazoizko

plataforma lortuko dugu beren interesen, beharren eta planen berri izateko. Horiek, urrunago edo hurbilago kokatuak dauden beste enpresetakoekin elkartuko ditugu, egoera homogeen badaude edo gai-arlo zehatzetan antzeko interesak badituzte behintzat.

Hala, gobernu-erakundeek diseinatu eta deitutako programa eta gida-lerro egokien erdikian egongo diren **eztabaida-guneak, lan-taldeak, LANKIDETZA-SAREAK** oinarri sendoz dinamizatu ahal izango ditugu. erdikian.

Gure iritziz ez da beharrezkoa azpimarratzea planteamendu taktiko honekin eraiki nahi dugun sektore askotako SAREEN sareak edo plataformak naturalki diseinatuko dituela **LANKIDETZA-PROIEKTU** guztiak, **enpresen COMPITE-INICIATIVAS** programaren **II. kapitulu**an zehaztutakoaren arabera. Horren guztiaren erdian Agentzia egongo da **OARSOALDEko-SARE**aren egituraz azaltzen dugun bezala.

3. JARDUERA-PLANA

Planak **ENPRESEN ARTEKO SAREEN** sorrera bultzatzeko helburua izateaz gain, funtsezko tresna da enplegua sortu eta garapen ekonomikorako, lehenik eta behin, eskualdeko **poligono bakoitzean gutxienez kudeaketa-organo edo erakunde baten** sorrera sustatu nahi du. Ildo horri jarraiki, besteak beste, honako jarduerak irekiko dira enprekin:

- Agentziak **poligonoetako enpresen arteko bileretan** parte hartzea.
- Erakunde/Agentzia-Poligono/enpresa harremanak bi noranzkoetan monitorizatzea.

- **Enpresaren lehiakortasunaren** hobekuntzak/sinergiak hauteman eta bideratzea, **lankidetzaren eta elkarteak eratzea** sustatuz. Enpresen ekimenez sortu behar dira eta **Agentziak dinamizatu egin behar ditu.**
- **Beste poligonoetako enpresetan hautemandakoekin parekatu edo elkartzeko eta, ondorioz, lanerako talde gurutzatua eratzeko (bai orientazio sektorialekoa, bai bestelakoa) bide eman dezaketen enpresa jakinen bestelako behar, interes edo planteamendu bereziak hautematea.** Helburua **OARSOALDEko-SAREA** eratzea da: enpresen sare handi eta gurutzatua egokiak diren dimentsio guztietan. Sarearen erdian **OARSOALDEA, Eskualdearen Garapenerako Elkartea, izango da ENPRESA-SUSTAPENERAKO sailaren bidez.**

Gainera, jarduera horien multzoak **“Ekoindustrialdea” edo industria-ekoparkearen** kontzeptua sustatzea eta garatzea ekarriko du.

Eskualdeko enpresen beharrak ezagutuz, sareko potentzial guztiaren batzea dinamizatu nahi da. Bestalde, gure iritziz, **hautemandako sinergieien balioa ematean** oinarritutako ekimen-mota honek enpresa txikia bere Jarduera Sektoreak eskatzen duen ikuspegi orokorrean eta dinamikan integratzen lagundu behar du.